

# -(T)AR Jendeari dagokion Berrekailua Zenbait Autoretan

eta baita-ere-tiar/-liar

ALFONSO IRIGOIEN \*

Lan honetan zenbait autoreren textuen zerrenda emaiten da gentilizioak letra italikoz markaturik doazela. Formak, beraz, autore bakoitzak emaiten dituen erara agertzen dira besterik gabe: *vizcaitar*/*Bizkaitar*, *prances*/*Frantses*, *Españarra*/*españatar*/*Español*, *quiputz*, *baigorritarra*, *hebreotarrac*/*hebreärra*, *goierritarra*, *Durangoarrak*, *godotarren* (genitibo plurala), *zumayatarra*, *afrikatarrak*, *elorriotar*, *arranondotar*, *Ondarroatarrak*, *Erromatarrak*/*Erromarrak*/*Romano*, *Kartagotarren* (genitibo plurala), *galatar*, *Ierusalemetar*/*Ierusalemдарretarik* (ablativo plurala), *Israeltar*/*Israeldar*, *Nazarenoa*/*Nazaretharra*, *Ethiopianoen* (genitibo plurala)/*Ethiopiar*, *Italiano*/*Italiarra*, *Atheniano*/*Athenestatar*, *Cypriano*/*Ziproarra*, *Egyptiano*<sup>1</sup>/*Egiptoar*, *Thessaloniceanoa*, *Mazedoniarra*, *Ninivetarrac*, *Cretianoéc*/*Kretarrek* (ergativo pluralak), *Arabianoéc*/*Arabiarrek* (ergativo pluralak), *lebitarra*, *Judu*/*Judeatarrez* (boz pasivoko subjektu agente plurala), *samaritarren* (genitibo plurala), *Philistintarrac*/*Filistindarrak*, *Iebussiarrac*, *Amorrhearrac*, *Guirgasçiarrac*, *Heuiarrac*, *Harkiarrac*, *Siniarrac*, *Aruadienarrac*, *Tsemariarrac*, *Hamatiarrac*, *Cananearren familiac* (aurreko bederatziaik hain-zuzen-ere), *Pheresiarrac*/*Pherezearra*, *Hamalekitarren* (genitibo plurala)/*Amalektarren* (genitibo plurala), *Atharraztarrak* (ergativo singularra), *Probentziarrek*<sup>2</sup> (ergativo plurala), *Nafartar*, *Loiolatar*, *Manreza-tarren* (genitibo plurala), *Garaztarra*, *Baztandarra*, *Jatsuarra*, *Goatarren* (dati-

\* Deustuko Unibertsitatea.

1. Izan-ere *ijito* hitza typo horretako forma batetik sortu da. Frantsesez *égyptien* da.

2. Duvoisin-en baitan *gipuzkoarrez* ari dela. Bizkaian *probintzianu* erabili izan da.

vo plurala), *Azpeitiarra*, *Palabarrac*, *moroen* (genitivo plurala), *Portugesen* (genitivo plurala), eta abar.

Autore batzuren obrak osorik arakatu dira: *Peru Abarca*, *Kresala*, Axularrena, Leizarraga-renak (*-ano* eta bestelako berrekailuena izan ezik), Prai Bartolome-ren *Olqueeta*, Echepare-rena, Dovoisin-en *Laborantzako liburua*, Lapitze-ren *Bi saildu hescualdunen bizia*, eta Olaechea-ren dotrina. Gainerakoenetan parte bat besterik ez.

### -TIAR / -LIAR

Ifarraldean agertzen dira *-tiar* eta *-liar* berrekailuak. Axularrek *goiztiar* erara erabiltzen duena D. Agirre-ren *Kresala*-n *goiztar* modura agertzen da, eta Prai Bartolome-ren *Olqueeta* delakoan *goixtar*. Axularrek baditu *kaltiar* eta *etxatiar* ere, Duvoisin-ek *jainkotiar*, *etchetiar*, *jornaltiar*, *egoiliar*, Etcheperry-k *bazcaltiar*, *Jaincotiar*, *baketiar*, Harizmendi-k *baquetiar*, *etche-tiar*, Andre dena Mariaren Imitacionea-k *garaitiar*, Chourio-k *Jaincotiar*, beheragoko textuetan datozenak baizik aipatzen ez direla. Duvoisin-ek Biblia itzulterakoan «zembait filosofo *Epikurotiar* eta *Estoiziar* [sic] [analogiaz, ikus beheraxeago honen parean simetrikoa den *Stoiciano*, frantsesez ere *stoicien* dela]» emaiten du, grekoaren bidetik gaztelaniaz ‘epicúreo’ eta ‘estóico’ erraiten denaren partez, Leizarraga-k XVI mendean «*Epicuriano* eta *Stoiciano* filosofo batzu» dakarren bitartean. D. Agirre-ren *Kresala*-k badu *zerutar* ere, ikus *zerutiari* Aita Lino Akesolo-k moldaturiko Retana hiztegiaren, GH, 1952, 78, aipatzen dela bertan, eta baita-ere «arrano *goitarrez* inguraturik», ikus *goitiar*<sup>3</sup> ‘goian bizi dena’ *Orotariko Euskal Hiztegiaren* Mariano Izeta-ren «Baztango Hiztegi Ttipia», *Euskera* (1985), 553-618 orr., aipaturik, eta Lapitze-k *mundutar*, Larreguy-ren baitan *mundutiari* agertzen den bitartean.

*Herritar* hitza Lapitze-k eta Maisterr-ek ere erabiltzen dute beherago aipatuko direnez gainera, eta baita-ere Duvoisin-ek: «ez dut nic *herritar* bat nola nahi uzten», Lapitze, «bere *herritar* gachouet», Maister, «*Eskaldun zure herritarrek* aspaldidanik dakite berei ekhartzen diozuten amodioa», «Aria hortaz, nik ere eskaraz ezarri ditut laborantzaren gaineko argitasun batzuek, *gurre herritarrentzat* premia zirenak», «Franklin deitzen zen aiphamen handitako Amerikano batek zer egin zuen bere *herritarrei* erakustekotzat nolakoa den igeltsuaren indarra?», Duvoisin, baina zentzuaren aldetik argi eta garbi bereizten da Aita Lino Akesolo-k moldaturiko Retana hiztegiaren, Dovoisin-en esku-izkribuzko Hiztegia aipaturik, biltzen den *herritiari* hitzetik.

Izan liteke *-tiar* berrekailua bi elementuz osaturik egoitea: *-ti* eta *-ar*. Izan-ere *-ti* berrekailuak bizidunei, eta bereziki pertsoneri, dagokien hitz derivatuak sortzeko balio du leku-denborazko deklinabideari ez dagokion esparruan, eta erabiltzeari dagokionez distribuzio komplementarioz erabiltzen direla bata eta bestea erran liteke<sup>4</sup>: *negarti*, *ezkerti*, eta abar, alde batetik, eta ablativoa den *etxeti* (*urten*, *etorri*, eta abar), bestetik. Gauza bera gertatzen da-

3. Kasu honetan kontuan izan behar da, ordea, *gora* eta *be(he)ra* erran beharrean Baztanen *goitira* eta *beitira* erraiten dutela.

4. Ikus ene «*Ti* berrekailua eta bizidun edo bizigabeko zentzua duten hitzak», *De re philologica linguae uasconicae*, III, Bilbao 1990, 31-37 orr.

teke *egoiliar* hitzean agertzen den *-liar* berrekailuarekin, zeren jatorrian *egoile* + *-ar* izan baitaiteke, bestearen analogiaz *-liar* bilakaturik.

### ERABILTZEKO MODU ZENBAIT

Era berean ager litezke, alde batetik, *Ierusalemetar Scriba eta Phariseu batzu*, *Israeltar guizonac*, *Ethiopiano Eunucho bat*, Leizarraga, *Israeldar gizonak*, *Ethiopiar gizon ebaki bat*, Duvoisin, *baserritar abarcadun bat*, *prances azeri artzalle oni* (dativoan), *prances euscaldunac*, *prances luebaguin bat*, *quiputz arzain oneei* (dativo pluralean), *prances icenagatic* (motivativoan), Mogel, *erritar gentilac*, Prai Bartolome, *Nafartar soldadoec* (ergativo pluralean), *Frantses armada*<sup>5</sup>, Lapitze, *menditar semea*, Hiribarren, *erritar erbestetuai* (dativo pluralean), *erritar mutil asko*, *erritar gizonak*, *erritar lagunak*, *atzerritar jakitun askok* (kasu ergativoan), *baserritar-zalduna*, *erritar erramulariak*, D. Agirre, *samariatar emazte bat*, Etcheberry, eta bestetik, *Iesus Nazarenoa*, *Mnason Cypriano iaquin-bat*, Leizarraga, *Iesus Nazaretharra*, *Mnason Ziproarra*, *Larrondo Atharrastarrak* (ergativo singularrean), Duvoisin, *guizon bizcaitarrac* (kasu ergativoan), Mogel, bigarren typoko hauek, bereiziki *guizon bizcaitarrac* erakoak, frekuentzia gutiagoz, datu hauen araura.

Mogel-ek *quiputz credua* emaiten du, eta D. Agirre-k «jatorriz *erritarrak* diran etxadiak», metonymiaz, horien struktura sakonean *kiputzak bere euskaraz baliaturik esaten daben kredua*, eta *erritarrak sorturiko etxadiak* daudela.

D. Agirre-k *Kresala*-n *bizkaitarrez*, *gipuzkoatarrez* eta *gaztelarrez* hitzak erabiltzen ditu Bizkai-ko euskarari, Gipuzkoa-koari eta gaztelaniari dagozkiola, eta Prai Bartolome-k «*Eusqueeraz*, *Erdeeraz*, *Prances*, *Italiano*, *Teutonico*, ta beste ascotan, dinueenez» izkribatzen du hizkuntza desberdinei dagozkiela.

Badira baita-ere, *eremutar*, *basotar*, *menditarra*, Mogel, «Ama doloratua nigarretan zarraicon *hiritar* ascorekin», Etcheberry, *legortarrak* (plurala), *itxasotarra*<sup>6</sup>, *itxaserritarra*, *erbestetarren batzuk*, D. Agirre.

D. Agirre-k baditu, bestalde, *gutarrak*, *zuentarrak*, eta baita-ere *Patxitarrak* eta *Koipetarrak*, familia desberdinei dagozkiela.

Mendiburu-k *Erreguin-darrac* (ergativo pluralean) eman zuen, 'erreginaren ingurukoak'.

### ZENBAIT ERABILTZE-MODU BARBARO AZKEN ORDUKO

«*Antarktiar*. adj. Antartikakoa; Antartikari dagokiona», *Euskal Hiztegi Entziklopedikoa*, (Klaudio Harluxet Fundazioa), Donostia 1995, 212 orr.

*Antarktiar Ozeanoa*. / *Antarktiar penintsula*. *Euskal Hiztegi Entziklopedikoa*, (Klaudio Harluxet Fundazioa), Donostia 1995, 212-213 orr.

«Antartikari dagokiona» izkribatzerakoan argi eta garbi eta jakinaren gainean adierazten da, dirudienez, *antarktiar* hitzari ez zaiola gentilizioaren zentzua eman nahi, eta *antarktiko* kultura-hitzaren ordezkio hibrido euskaraz batere oinarririk ez duena urregorritzat eskaini nahi dela horrela, hain-zuzenere gatzelaniaz erabiltzen denarekin antzik gutien duena. Grekotikoa den *hy-*

5. Kontuan izan erdaretan *armada francesca* typokoak erabiltzen direla.

6. Lhande-ren Hiztegiak *itsastar* biltzen du, cfr. *Dictionnaire basque-français*, Paris 1926.

*brido* hitza erabili dugu, baina agian hobe litzateke erraitea sonsonetezko linguistika hutsalean oinarritu zela hitz hori eta antzekoak lehenengo aldiz asmatu zituen, benetako zientzia ondo landurikoan baino gehiago. Antartika-koa, beste alde batetik, hangorik bizi den neurrian, *Antartikarra* litzateke gutienez, eta ez *Antartiarra*.

Hala-ta-gutziz-ere Entziklopedia berean ez dute eragozpenik *baltiko* hitza erabiltzeko, hiru zentzu emaiten zaizkiola: «1. *izond.* Baltiko itsasokoa edo hari dagokiona. 2. Baltiko itsasoaren inguruko lurraldeetakoa edo haiei dagokiena, bereziki Estonia, Letonia eta Lituaniako errepublikez esaten da. *Errepublika baltikoak*. 3. *iz.* eta *izond.* Baltikoaren ekialdeko itsasertzean hitz egiten den hizkuntz talde indoeuroparra. Bi adar nagusi ditu: XVII. mendean desagerturiko mendebaldekoa (prusiera zaharra) eta ekialdekoa (lituaniera eta letoniera)». *Baltikoko lurraldeak* aipatzen dira gero, 450 orr. Honezaz ez dago ezer erraitekorik aurrekoei dagozkien puntuetan, zeren *baltiko* hitza Europa-ko kulturaren bidetik baitatorkigu. Izan-ere latinez *balticus*, *-i*, zen, eta *Baltia* geographia-izenari zegokion<sup>7</sup>, eta ondorioz aipaturiko zentzu horiek latinaren bidetik hedaturik ditu. Beste alde batetik liburuaren titulua bera ere *Euskal Hiztegi Entziklopedikoa* baldin bada, ontzat harturik *-iko* berrekailua duen *entziklopediko* greko zaharrea oinarritzen den hitza, forma honek jendeari dagokion zentzurik batere ez duela, zer problema legoke *antartiko* ere —grekoz *ajntartikov*", *hv*, *ovn*, era berean jendeari dagokion zentzurik gabekoa— ontzat hartzeko, *antartiar* hitz hibrido badaezpadako eta iluntasunez beterikora jo gabe?

*Antartiar Ozeanoa* Xabier Kintana-ren hiztegiaren agertzen da lehenengo aldiz, cfr. *Euskal Hiztegi Modernoa*, Bilbao 1977. Hala-ere hiztegi berean «*Antartiko*: antártico» ere badator, eta bigarren honezaz ez dago ezer erraitekorik. «*Baltiko*: báltico» ere biltzen du, baina ez du *Baltia*-ri legokiokkeen *baltiar* formarik emaiten. Eta hara non *Antartiar Ozeanoa* delakoari eta typo horietakoei gagozkiela gure artean gauzak okerreko bidetik abiatu ditugun, zeren hiztegiaren bidez hizkuntza aldatu nahian ibili baikara, eta ez hiztegi-tan komunitate linguistikoa tradizio ondo neurturiko batez sustraiturik daudenak biltzen, edota mundu zabaleko kultura basikoa nola barneratu behar gendukeen sakonki ikertzen. Koldo Mitxelena-k eztabaida gogor bat zela medio behinola erran zuen bezalatsu uste dut asko kostatzen zaigula gurdia idien aurretik ezartzeko joera petrala baztertzen.

Erran beharrekoa da Euskal Akademiak 1995-XII-29-an *Baltikoa* (*Itsaso Baltikoa*) ontzat hartu zuela.

*Arktiar artxipelagoa*. | *Arktiar lurraldea*. | *Arktiar Ozeanoa*. *Euskal Hiztegi Entziklopedikoa*, (Klaudio Harluxet Fundazioa), Donostia 1995, 292-293 orr.

*Arktiar Ozeanoa* Xabier Kintana-ren hiztegiaren agertzen da lehenengo aldiz, cfr. *Euskal Hiztegi Modernoa*, Bilbao 1977. Hala-ere hiztegi berean «*Arktiko*: ártico» ere badator, eta bigarren honezaz ez dago ezer erraitekorik.

*Britaniar irlak*. | *Britaniar legioa*. *Euskal Hiztegi Entziklopedikoa*, (Klaudio Harluxet Fundazioa), Donostia 1995, 671 orr.

7. Latinez *Baltia*, *-ae*, zena egungo egunean Skandinavia-ri dagokio.

«*Britaniar*: británico» Xabier Kintana-ren hiztegian agertzen da lehenengo aldiz, cfr. *Eukal Hiztegi Modernoa*, Bilbao 1977, baina hiztegi berean ez dator *britaniko*.

«Barbaroen hedapena *Iberiar Penintsulan*», ikus *Espainia* hitza, *Euskal Hiztegi Entziklopedikoa*, (Klaudio Harluxet Fundazioa), Donostia 1995, 1084 orr. (Zertan erranik ez dago *Atlantiar Ozeanoa* ere erabiltzen duela, 1082 orr.).

*Iberiar Penintsula* eta *Atlantiar Ozeanoa* Xabier Kintana-ren hiztegian agertzen dira lehenengo aldiz, cfr. *Eukal Hiztegi Modernoa*, Bilbao 1977, baina hiztegi berean ez datoz ez *Iberiko* eta ez *Atlantiko*.

Erran beharrekoa da Euskal Akademiak 1995-XII-29-an *Ozeano Atlantikoa* ontzat hartu zuela.

«Batzuk Euskal Herria eta *Kantabriar Mendikatearen inguruetan* finkatu ziren», ikus *Espainia* hitza, *Euskal Hiztegi Entziklopedikoa*, (Klaudio Harluxet Fundazioa), Donostia 1995, 1084 orr.

*Kantabriar Itsasoa* eta *Kantabriar Mendikatea* Xabier Kintana-ren hiztegian agertzen dira lehenengo aldiz, cfr. *Eukal Hiztegi Modernoa*, Bilbao 1977, baina hiztegi berean ez dator *kantabriko*.

Xabier Kintana-ren hiztegian bada «*Mediterraniar*: (adj.) mediterráneo; *Mediterraniar klima*: el clima mediterráneo» ere, baina ez da besterik ageri, cfr. *Eukal Hiztegi Modernoa*, Bilbao 1977.

Erran beharrekoa da Euskal Akademiak 1995-XII-29-an *Mediterraneoa* (*Mediterraneo itsasoa*) ontzat hartu zuela.

Xabier Kintana-ren hiztegian badator baita-ere «*ETAR*: partidario de E.T.A., etista», eta horren ondorioz gaztelaniaz ETA-kideez berba egiten denean *los etarras* gora eta *los etarras* behera, edota *el etarra* edo *la etarra*, ari izaiten dira eten gabe urteak eta urteak. Hala-ere euskaraz ez da normalki *etarra* formarik erabili ohi. Erran dezagun *etarra* hitza inongoa izaitekotan gaztelaniazko hiztegiko izaitera iragan dela gehiago, ezen ez euskal hiztegiko. Ez diote, ordea, jaramonik egin Espainian *etista* hitzari dagokion partean. Bakoitzak dakuske zer arrazoi subjektibo dagokeen.

Eta abar.

## TEXTUAK

### PERU ABARCA <sup>8</sup>

Peru Abarka-k ez du *-ano* edo *-anu* berrekailudun hitzik.

66 orr.: P. Agur bada, Maisuba, gois artian; gau on bat igaro eguizu, ta dei eguiquedazu, ez ollarraren goisseco soñuban, ta bai eguna cerbait arguituta. Egun on bat alcarregaz igaro badogu, obiaguac igaroco dituzu. Eruango zaitut egun batzubetaco neure echera. An ta videtan eracutsico deutsudaz gauza asco, ta esango dozu nos edo nos *Baserritar* batec iracatsi deutsuzala, erri barrubetacuac iracatsi ez eutsubezanac.

8. Juan Antonio Moguel, *Peru Abarca*, Durango 1881. Bada Durango-ko Gerediaga Elkarteak 1981 urtean argitara emaniko edizio faksimilezkoa ere.

85 orr.: M. J. Ecin esan cinait atseguin andijago emongo deustan gauzaric. Icaratuco ditut neure opicijocuac, esan daijuedanian topau dodala *baserritar abarcadun* bat, neuc baño anatomija gueijago daquijana.

94-95 orr.: P. Bai alan jazoten da aspaldico urteetan; nequezale guztia bere badauquez euren zapatac zutoechubetan, ta calcerdijac cacuan eseguita. Sartu dira capela querizgarriac, ta egal biribil ta lucedunac. Nic enzun neutsan aita asaba bati, anchina andiquijac bere ebiltzala abarcacaz, chapel batubaz, ceintzuc obago dirian buruba ta belarriac berotuteco querizgarri zuc sombrellubaren icena emoten deutseezunac baño. Jaguico balira lurpetic anchinaco asabac, ez leuquee sinistuco *vizcaitar*, ta euren ondorenguac diriala gaurco jaun, andiqui ta andiquigurac. Mutillac beti erabilen buruba mutilduric, ta emendi etorqueen euren icena. Guizonac azten eben ulia lepoti beera ezarteco, ta aguertuco bacirian guizon artian. Nescatillac erabillean uliac aguirijan euren garbitasunaren igargarrizat. Nesca zantar jausi, ta garbitasuna galdubac, zapijacaz estalduta burubac, lotsaturic, atzeratu ditezan bestiac dongaro eguitetic. Andra ezcondubac estaldu eruezan burubac, batzuc orain leguez, ta echanderac gira ascogaz. Aztu dira asco gaurco eguneraco anchinaco gure mutil, nescatilla, guizon, ta andreen jaanci irauncorrac. Nor nor dan ¿noc ezagutu? Len ozta ezagututen zan matsardaua. Sagasti asco cirian, ta errico ardao edo sagardauaz igaroten cirian *vizcaitar* ta beste euscaldunac.

101 orr.: *Basotar* gaissuac  
Dino, ¡Ce gozuac  
Emengo jaaquijac  
Eta edaarijac!

161 orr.: M. J. ¿Ce guizon modu nas ni? *Baserritar* ta *prances luebaguin* batec bere dotrina gueijago daquije nic baño.

191-192 orr.: AG. ¿Cer eguin daben? Ventera andra zar erdi ichu bat dana banatu berarriaz urdai azala aurrian iminita, labandu ta jausi cedin. Guerrero barberuba dala, ta Jangoicuac daqui certzuc eracutsi deutzazan gaissuari; illaguinic egon da, ta gastubac jaanian eguin, ta ecer pagau baga juan jacon. Nescatilla bere otseñac aguertu dau guztija; anche dago urdai azal, labandu eragui-eutsana. Ez dau plaguiac gueijago asmau. Beragaz eban lagun *baserritar* bat; baño nescatilliac berac declarau dau, ez euqueela bijac erruba, ezpada bacarric barberubac.

124 orr.: P. *Bizcaitar* garbijac, odolian zuri ecer zor ezteutsubenac.  
170 orr.: Asto bizcarmendi  
Mendi famosó,  
*Españarra* an dago  
Beti sendo sendo;  
*Francesa* joaiten bada  
Gueldi, eta mansó,  
Coco ezur andiac  
Etorrico francó.

171 orr.: M. J. ¡Au ce contu da! ¡Ni nas asto andi bat. Orra celango conseju onac emoten dituban euscaldun luebaguin ta *francesac*, ta ce esacune ederretan!

153 orr.: CHOM. Aita, Juanis *Prancesa* da, ta lagun bat dacar beragaz nic eztazaudana; baña abarqueen ichuriari beguiratuta, uste dot dala zure ezagun *quiputzen bat*.

153 orr.: M. J. Peru, erdu ona mandatuchu bat esan daizudan issillic?... ¿Ce guizon modugaz tratetan dozu? ¿Celan echian artu *prances*, ta *quiputz bat*?

154 orr.: P. ¡Ah Maisu Juan! Burutacino, ta zaijo donga orreec quendu eguizuz. Bijoc dira neure ezagunac. *Prancesa* sarri egon oi da emen, ta da zu ta ni baño christinau obia.

154 orr.: M. J. *Prancesa* ta ¿christinau ona? Sartu eijozu ori zoro bati.

156 orr.: M. J. Lenengo, *prances azeri artzalle oni*, ta guero *quiputzari*.

160 orr.: M. J. Ichan daguijala pusca baten. Oni obeto edo gueijago aitu deusat, ta obeto irichi deust *prances euscaldun* icenecuac baño.

161 orr.: M. J. ¿Ce guizon modu nas ni? *Baserritar* ta *prances luebaguin* batec bere dotrina gueijago daquije nic baño.

162 orr.: M. J. Eguija esan biar deusut; ez neuque osóz esango eusque-raz credua, ta daquidana bere erdi erdera ta erdi eusquera: alan eracutsi eusten chicarretan. Enzun dot *prances* ta *quiputz credua*; esaizu zeuc bizcaicua.

163 orr.: P. Joanis esaten deutsee *prances euscaldunac* Juan edo Juanico esaten deusagunari.

194 orr.: M. J. Bai Peru neuria. Emoten deusut verbia orain artian baño obagua, ta arima zaliagua izango nasala. Zure verba onac, zure echeco ta echecuen jarraigarrri edo ejemplu onac iraatsi ditu nire biotzian gogo barri ta on izatecuac. Emoidazu laztan bat urten orduco emendi. Ez esan *prances luebaguin*, ta *quiputz arzain* oneei cer igaro dan.

171 orr.: Onla itz eguiten zutenac, etziren ez biotz gogorren jabeac. Naia-goco zuten beren echeetan lanzan ari, ecen ez guerlaan *Españarren* odola is-surtzen.

168 orr.: B. Ni nas *baigorritarra*; erri tippi batecoa.

74 orr.: Nire oe anchinaco *Eremutar*, ta Padarrac gogor ta igüingarrijago-ric euqui ez ebeena, sei lauco, ardi, ta imicha bacochecho laumarai esquetan ezpadau.

169 orr.: B. Guerla cer dan ez dut jaquin. Ihes eguin nuen andic, ta ebil-du naz Españaco iri euscaldunetan nola ala ezcutuz edo agueriz. Beldur ici-garrietan irago nituen asco egun. Maiz bihillatua izandu nintzan *prances ice-na* gatic. Behein baño guehiagotan eguin nuen ló basoan *bizcaitarren beldu-rrerz*. Pranciara ez nuen joan nai, guerlara eramana izan ez nindin. Zorionez bucatu zan guerla gaizto ura, ez daquit nola viciaz irten nintzan Francian ta Españan, Baigorri ta Bizcaian, nor nai ardiac ta haunzac, arcume ta haunz-chumeac, onac eta gaiztoac. Baciren Baigorrrin ecin bestez, edo indar utsez ta porchaz guerlara cijoacenac ¿Nai duzu enzun urte char aietaco *Baigorritarren* canta soñuequin lagundua? Ona emen.

173 orr.: Jauna, guelditu gura badau pusca baten gugaz emen, enzungo ditu enzutecuac. Ona emen iru euscaldun modu, *prancesa*, *quiputzta*, ta *bizcaitarra*, alcar ederto aituten dabeenac.

174 orr.: AB. *Prances* ta *quiputzta*, ¿cer dinozu zubeac? ¿Ondo esan dau *gui-zon bizcaitarrac*?

174-175 orr.: P. Otsua da *oitsua*, lecu oi, edo goi zalea, *menditarra*. Artza, *Ar*; edo *atzapartsuba*. Catamotza esaten jaco *musu motza* dabelaco, ta catuba dirudijalaco.

185-186 orr.: Noeren ondorengoren batzuc, munduti zabaldu cirian demporan, etorri cirian Española; nortzuc izan cirian, ezdaquigu ciur. Baña San Geronimoc gueijen gueijenacaz dino Española etortia tocau jaqueela Tubal berari, edo bere ondoringo [sic] urrecuai. Oneec ecarri eben euren verbeetia, ta onec izan biar eban Babelco Torre eguitian Jangoicuac iraatsi cituban artecoren bat. Eusqueria zala verbeta au, sinistu guñai dagozan errazoe andijac gaiti. Eusqueriari eztaquijo inoc arrezquero etorreraric. Eusqueria zan anchinaco España guztico verbeetia. Eusqueriac ez dauca, ezagututen dirian beste verbeetacaz, alcartasunic. Eusqueriac daucaz chito anchinacua dalaco usain ta sinisgarri asco, ta gauza ascotan. Baña cec gueijen zurtuten nabon ni ta gozaro, da icustia, celan abere, piztija, guiberri ta egaztijac dauqueezan eusquera icenac, azaldau edo espliquetan dituben verbaac, batu ta laburturic, euren cercelidade ta propiedadiac. Au berau eucan Jangoicuac Adani iraatsi eutsan verbeetiac, ceñec izan biar eban verbeeta oso edo perfeccino andicuac. Iñoc ez daqui ciur, cer eguin zan verbeeta lenengo onegaz; edo galdu zan guztiz, edo nastau zan guerora besteen batzucuz, edo dan *hebreotarrac* gorde ebeena.

#### D. AGIRRE, KRESALA <sup>9</sup>

«Oarkera batzuk itzaurrea legez», 5 orr.: Bizkaiko euskeran da itxasaldeko <sup>10</sup> ekandu edo oiturak gogoan ditudala, ipuintxu bat esaten edo lan urri eskeltxu bat egiten asten naz, irakurlea; ta zu, *goierritarra* bazara, txorierrian edo lurbarruan jaio ta bizi zareana, ezteustazu ezer ulertuko, ta bear bada nire euskerea ezjala euskerea esaten jardungo dozu.

«Oarkera batzuk itzaurrea legez», 7 orr.: Nik geure euskera maite-maitea dan baño be geiagotan bigun da irakurgarri egin gura neuke, ta orregaitik kendu nai neuskioz Bizkaikoari beren lastasun [sic], koska ta aoa zabalik ego-teak, *aa bi* edo *ee bi* alkarregaz datozenean gertetan dan legez. Bizkaiko erri batzuk, iñok erakutzi [sic] barik eta guztiz ederto dakie esakera batzuen lastasuna [sic] gozatuten: nunbaiten, *aa bi* edo *ee bi* alkarregaz etorriarren, beti bat bakarra esan daroe. *Durangoarrak* uste dot dirala *dabee* esateko *dabie* ta *ezteutseez*-en orde *ezteutsiez* esan oi daroenak. *Ondarroatarrak* oneek esan bearrean *oneik* diñoen beti, ta olan beste itz asko beste erri batzuetan.

«Oarkera batzuk itzaurrea legez», 8 orr.: Eta jakin daiela irakurle guztiak: Bizkaiko euskerearen lastasunak [sic] aitatutean eztoz esan gura Gipuzkoakoa edo beste lurralde batekoa bardiñagoa, samurragoa edo akatz [sic] gitxiagokoa bada edo ezpada. Gaur, *bizkaitarrez* lantxo au egitean, Bizkaiko akatzak [sic] idoro ditut; biar, *gipuzkoatarrez* zerbait egiten badot. badakit Gipuzkoako izkuntzearen utsuneak billatuko ditudana.

«Oarkera batzuk itzaurrea legez», 8 orr.: Egin daigun lan aspertu barik. Iñorenagaz aberasturiko izkuntz asko dakusguz arro ta lerdin, alderdi guztietan euren buru apainduak erakusten; atera daiguzan guk be geure etxe barruko aberastasunak, apaindu daigun aldogen añan euskerea ta erakutzi [sic]

9. Ikus Domingo Agirre, *Kresala*, Durango 1906.

10. *Itxasaldeko* hitza *tx*-ekin eman dugu hemen, baina 1906-garreneko edizioan *ts* du, *s*-aren gainean *n̄*-k duen goiko marra berbera daramala. Gainerakoetan ere berdin gertatzen da *tx* emaiten baldin bada. Gauza berbera dugu *x* graphiarekin.

daiegun erbesteko arerio ta *erritar erbestetuai* eztala illteko [sic] zorian bizi ta eztala gañera eurak uste daberen legez illgarria.

16 orr.: Ederra da Arranondoko elizea. Kanpotik begiratu ezker, edozeñek daki *godotarren* egikerarik onenetakoa dala.

16 orr.: Abadeak, Jesusen elizmai aurrera urtenda, asi ziran *Miserere* deritxon Dabid Igarlearen arrena esaten, da erri guztia egon zan, ordu erdiren batean, gauza danak aldaikezan Jesus onaren aurrean auspez, eskaririk beroenagaz, *itxasotar* guztiak osasunez etxeratu eizala eskatuten.

28 orr.: Jatorriz *erritarrak* diran etxadiak, ezizen ori antziñetatik daroe, ta etxadiko danak ezizen bategaz esagutuak [sic] izaten dira.

29 orr.: Badakit albistari-zabaltzallea ibilli dala iñoiz eskutitz bat zeñentsakoa [sic] zan eziñ argitaraturik. *Sr. D. Julián Iragorri* eukan estalkian, da Julian Iragorri zein zan ezekian iñok. Atso-agure guztiai itandu jakuen, da atso-agureak etzala, esaeben, *erritarra* izango.

31 orr.: Izan da Euskalerriko arrantzale bat, *zumayatarra*, José Maria Zubia eritxona, baña *Mari*-ren izenagaz esagutua [sic].

36 orr.: Arrantzalien bizitza beti izaten da neketsua, baña neguan iñoiz baño neketsuagoa. Neguan izaten da besigutea; neguan, *legortarrak* epel epletan lo dagozan bitartean, potin andirik astunenak kalara ezin eruanik eta kalatik ezin ekarririk ibiltea.

46 orr.: Ikustekoa egoten da orduantxe Arranondo. Iri edo kaleak garbi, etxeak zuri, suburruak ketan, gizon da emakumeak dituen soñekorik onenak jantzita; *erbestetarren* batzuk baselizaruntz, Antiguako Andre Mariari eskintzeko argizariak eskuetan daroiezala; Mendaroko edo Ispasterko opill-goza saltzalleak enparantzan, elizondoan edo gizategirik geien dabillen irietan jarrita, balotzara zabalak aurrean dituela; ta erriko neskato mutikoak, adurra dariuela ta otzaretako gozoak begiakaz jaten, euren ortz da agiñen zindotasuna erakusteko txanpon zarren baten jabe ezpadira.

56 orr.: Eta iñori otuten bajako eztala siñistutekoa Anjelek erriko jaietan bere burua ez erakustea, jakin daiala orrek, itxaserrietan be eztirala gizon guztiak aizedun, txakillo ta buru ariñekoak, eta badagozala zenzuna ta burua tentunean daukezan gizonak be; bada ezin leiteke, aoa betean, zuzen da egiaz beti esan: “olango erritakoak zoruak dira edo beste atakoak zentzundunak”. Danetarikoak dira edonun. Anjel, *itxaserritarra* izanarren, mutil burutsua zan, gazte-zarra, gurasoen mendean pozik egoana, lotsabagekeria zertzan ezekian mutilla, aingeruak langoxe ona, balia baizen indartsua, erramulari erri-me.

59 orr.: Erritxoetako jaialdiak irukotxak izaten dira. Orregaitik, bigarren egunean be bazirauen Arranondoko jaiak; baña lenengoan baño askozaz motelago ta otzago. Elizan etzan gauza barri andirik izan; erbesteko esagun [sic], adiskide ta odolekorik geienak alde egieben euren errietara; *erritar mutil* asko, aurrereguneko jan edan geitxoagaitik eta lo gitxitxo egin ebielako, guztiz zurbildurik egozan; emakumeak ez ain ederto ta apañ jantzita; gizonik langillienak asi ziran euren zeregiñetan.

63 orr.: —Guzurra. Gurerik ezta egundo zuenaren atzetik etorri, batera urten ezker. *Gutarrak zuentarrak* baño geiago dira edozetan.

69 orr.: Askok usteko dau zatarkeri geiegi ipinten ditudala emen: izan leiteke; bana Brixek eta Tramanak esandakoen laurenik eztot ipiñi; ta alan be, *erritar gizonak* euren txalopetako arazo ta zeregiñetan, ezeri jaramonik egin bago jarraitu eben.

75 orr.: Iñoiz baizen *goiztarrago*, elizarakoago, bastertuago [sic] egin zan, da jolasetara ezaban bere bururik agertu gura. Amesai ate guztiak itxi, lurreko poz guztiak agur egiñ, gasterik [sic] zar itxurak artu, ta Jaungoikoak emoniko kurutze astuna ondo eruanaz bizi gura eban.

82 orr.: —*Aprikañuak (afrikatarrak)* dira orreik.

88 orr.: “Iru aldiz egin dot tirabira. Lenengoan, Arno atzean, besigutan gengozala; bigarreanean, aortxe (ara ortxe) erriko sarreran; da bietan berialaxe artu genduezan *erritar lagunak*.

94 orr.: Lelo, zio edo gai orregaitik, au da, Elizeari ta Euskal erriari bakean eziñ itxi eutsielako, Itxasgizonak askoetan emoeutsen miñ beragaz batuten zirean *erbestetar* edo erbesturiko batzuei.

95 orr.: —Etzeunkan ona etorri baño lenago euskerea ikastea baizen: dana ulertuko zenduan orduan ederto: Nik, erbestetan ibilli izan nazanean, euren izketan itz egin dautsiet *erbestetarrai*, erdizka ta motel bada be. Etxat egundo gogoratu eurak euskeraz itz egin bear deustiela neuri.

95 orr.: *Iskillosdunak*: —Baña, gizona, zer diñostazu? Gogoratuizu, alde batetik, zuen euskera ori, erdi-izkera ezkel zatar bat dala, ta beste aldetik *españatar* guztiok *gaztelarrez* ikastera naita naiztuak [sic] gagozala.

95 orr.: *Itxasgizonak*, berotuten asita: —Eztiñozu ondo, zalduna. Euske-rea antxiñetako izkera-guraso, eder, mamintsu ta zakona [sic] da, *atzerritar jakitun* askok dakien legez, zuek jakiñ ezarren.

98 orr.: —Abade egin da laster pralletegian sartu zan *elorriotar gizon* done bat. Apezpiko edo Abadeartzaiñ izatera eldu zan gero, ta Jesusen siñistea zabalduten ebillela, Tonkiñen kendu eutsien burua, ezpategaz.

116 orr.: Bilbora eldu zanean, *arranondotar* esagun [sic] bat eukan arek Atxuriko gelunean zain, da beragaz batean, beti erri andietan oiturik dagoan emakume baten antzera, geluneko gizon da emakume narrasen deadar, eskintze ta morroikintzeari jaramon barik, kalietan zear joan zan aurretiaz bilatuta eukan etxera.

123 orr.: Txanogorrik eta emasteak [sic] gure jantzi apañeko *baserritar-zalduna*, urrezko katedun gizona, etxean ikusi ebenean, ezekien beragaz zer egin.

138 orr.: Bide orren alde batetik ikusten da, oraiñ aldatz bera datorren solo gariz betea, gero sagastitxo bat, laster baserri eder bat, beingoan iratza zabal berdea, gastañadi andia urrengo, aristi tantaittua ondorean, errekondu sakon bat noizean beñ, sagasti andiak ostera, soro landuak barrero, ta bidearen biurri batean, usterik gitxien dan orduan, buru alde guztia arrano *goitarrez* inguraturik daukan ikaragarritzko atx andi baltz sendo ta arro zerurutz jaso.

147 orr.: —Ara, Jauna, —esaeban Txanogorrik Indianoagana eldu zanean— lotsatube egiten naz, baña laguntasuntxo bat eskatutera nator. Egia da, berori gure Mañasitxugaz eskontzen [sic] danean, legatzetarata joan bearrik eztot izango; baña, edolabere. *itxasotarra* nazalako itxasoari guztiz ezingo deusatala itxita, orretarako potintxo barri baten bearrean nago, erri aurean da atxondoetan ibilteko baizen ezpada be. Lengoa zarra daukat, zarra ta sorra, askotan arabakindua, sutarako baño geiago ia eztana, ta barria neuk egiteko eztaukat naikoa dirurik.

171 orr.: Arranondoren lepotik egindako barreari olango destaña ta irain-tasun mingarriakaz erantzunarren; lotsagalduak, (egia esan bear da) miñ txarrekoak, (edonun dago bat edo beste) ta gaisto [sic] itxura andikoak izanarren, etziran barrutik gaistoak Tramana ta Brix. (Arranondon eztago biotz

gaistokorik, *arranondotarra* bada). Ondo erakutzi [sic] eben barru onekoak zirala, andik laster, *erritar erramulariak* garaitu zituan txalopako agintari giza-zagaixoa ito zanean.

175 orr.: Zoratuta egozan azkenerako *arranondotar* guztiak eta zorakeri andiak egiten zituen. Patxi ta Peru: ezegoan eurentzat beste gauzarik Lurbira danean. Batzuentzat, Patxi zeruko aingerua zan da deabru gaizkiña Peru; bes-tientzat, Peru zan *zerutarra* ta infernukoa bestea.

176 orr.: Mañasiren aita guztizko larritasunetan ibilli zan txartela nori emon ezekiala. Lenengo egunetan Indianoari agindu eutsan bere alde emongo ebalá, baña gero txalopakoak jagi jakozan gora goraka, ardantegiko lagunak ia ito eben, edozeñek esateutsan, kalean, saldutako gizona zala, erriaren arerioak potiñ baten diruagaz erosi ebiela, goiko ta beko *Patxitarrak* ezeutsien baketan izten iñun be, ta azkenean, ondo eldutako ikoa baño bigunago egoan gizona, edo obeto esateko, lakioan jausiriko txoritxoa legez egoan, da ezekian zetara jo edo lakiotik zelan urten.

181 orr.: Sardinzarren ustez, *Koipetarrak* antxiñatik zirean eriste andiegi-koak, beti euki oieben burua besteak baño geiagokotzat, eta areikaz ondo egon nai ebanak, morroi edo mendeko izan bearko eieban, naiz da euren etxean bizi ez. Emasteak [sic] osterá, diru zaletxoa zan baña, ezaban gura bere seme kutuna iñoren morroikintzan ikusterik.

#### AXULAR <sup>11</sup>, GVERO (1643)

18: Izan zutenean *Erromatarrek*, desiratzen zuten abantaila eta garaitia *Kartagotarren* gainean, sarthu ziren konseilluan *Erromatarrak*, ea zer eginen zuten Kartagoko hiri hartzaz.

184: *O stulti et tardi corde ad credendum* (Lc. ultimo). Hala Iondone Paulok ere mehatxatu zituen Galaziago iendeak, erraiten zerauela: *O, insensati galatae, quis vos fascinavit, non oboedire veritati?* (Gal. 5 al 3,1). Ha *galatar* zentzu gabeak, nork erhotu, eta liluratu zaituzte, ezpaituzue orai, lehen bezala, egia obeditzen eta sinhesten?

116: Baiña ai, ai, eta millatan ai. Non da bere lehen fruitutik, bere obren hastetik, Iainkoari dasta arazitzen deraukanik? Non da giristino *goiztiarrik?* Goiz ontzen denik? Gaztedanik Iainkoa zerbitzatzen duenik?

239: Beraz hunelatan, prinzipalki eliza gizonak eta presuna ezkonduak, baiña gero begira bitezi bertze guztiak ere haragiaren lohian sartzetik eta hidoiztatzetik. Zeren behin hidoiztatuz gero, iakin ahal dezakete ezen *kaltiar* eta sosegu gabe izanen direla: eztirela urriki gabe gerthatuko.

240: Eta hala dela ezaguturik, behar du halaber lagun bilhatu, eta fabore eskatu, baldin nahi ezpadu *kaltiar* gerthatu eta benzutua gelditu.

362: Bertzeren agerrian iendèk ikhusten dutela, gaizki bizitzen denak, bere aldetik denaz bezanbatean, agerrian diren hek, beha daudenak, hiltzeintu, *kaltiar* errendatzeintu.

362: Zeren lehenbizikorik, etxeko iaunari bidegabe egiteaz, eta desohore emateaz, etxeko guztiak ukitzen dira, familia guztia desohoratzen da. Bada nola bekhatutan egoiteaz, Iainkoari, mundu guztiko etxeko jaunari, eta buruzagjari, egiten baitiozu bidegabe, eta emaiten desohore: eta munduko krea-

11. Villasante-ren edizioko graphia eta numerazioa emaiten da.

tura guztiak, are harriak ere, etxeke iaun hunen familia, eta *etxatiarrak* baitira: hala zure bekhatutan ibiltzeaz guztiak ukitzen dira, guztiak bidegabe erre-zibitzen dute.

LEIÇARRAGA <sup>12</sup>

«S. Matthev», XV, 1: Orduan ethorten dirade Iesusgana Ierusalemetar Scriba eta Phariseu batzu, dioitela <sup>13</sup>, grekoz: **Tovte prosevrcontai tw'/ jlh-sou' ajpo; JIerosoluvmw'n Farisai'oi kai; grammatei'" levgonte"**.

«S. Iohannes», VII, 25: Erraiten çutén bada Ierusalemetar batzuc <sup>14</sup>, Ez-ta haur hiltzeco bilhatzen dutena?, grekoz: **"Elegon ou\`n tine" ejk tw'n JIe-rosolomitw'n, Oujc ou\`tov" ejstin ojn zhtou'sin ajpokei'nai...**

«Apost. Acteac», II, 22: Israeltar guiçonác, ençun itzaçue hitz hauc: Iesus Nazarenoa <sup>15</sup>, guiçon laincoaz approbatua çuec baithan obra excellentez eta miraculuz eta signoz, cein eguin baititu laincoac harçaz çuen artean, ceurocere daquiçuen beçala, grekoz: **"Andre" jIsrahli'tai, ajkouvssate tou;" lovgou" touvtou": jIhsou'n to;n Nazwrai'on, alndra ajpodedeigmevnon ajpo; tou' qe-ou' ejj" uJma'" dunavmesi kai; tevrasi kai; shmeivoi'" oil" ejpoivhsen di j aujtou' oJ qeo;" ejn mevsw/ uJmw'n, kaqw;" aujtoi; oildate.**

«Apost. Acteac», VIII, 27: Eta iaiquiric ioan cedin, eta huná, guiçon Ethio-piano Eunuchobat, Ethiopianoén reguina Candaceren azpian manamendu gucia çuenic <sup>16</sup>, cein baitzén haren onhassun guciaren gaineco: eta ethorri içan cen adoratzerá Ierusalemara, grekoz: **kai; ajnasta;" ejporeuvqh: kai; ij-dou; ajnh;r Rijqivoy eujnou'co" dunavsth" Kandavkh" basilivssh" Rij-qiovpwn, oJ" h\`n ejpi; pavsh" th'" gavzh" aujth'", oJ" ejlhluvqei pros-kunhvsw'n ejj" jIerousalhvm.**

«Apost. Acteac», X, 1: Eta guiçô-bat cen Cesarean, Cornelio deitzen ce-nic, Italiano deitzen cen bandaco cêtener, X, 2: **Deuota**, eta laincoaren bel-durra çuena bere etche guciarequin <sup>17</sup>,..., grekoz: **jAnh;r dev ti" ejn Kai-sareiva/ ojnovmati Kornhvlio", eJkatontavrch" ejk speivrh" th'" kalou-mevnh" jItalikh'", X, 2: eujsebh;" kai; fobouvmeno" to;n qeo;n su;n pan-ti; tw'/ oilkw/ aujtou',...**

«Apost. Acteac», XIII, 16: Iaiquiric bada Paulec, eta escuaz ichil litecen keinu eguinic, dio, Israeltar guiçonác, eta laincoaren beldurra duçuenác, ençuçue, grekoz: **ajnasta;" de; Pau'lo" kai; kataseivsa" th'/ ceiri; ei\`pen: "Andre" jIsrahli'tai kai; oiJ fobouvmenoi to;n qeovn, ajkouvssate.**

«Apost. Acteac», XVI, 21: Eta denuntiatzen dituzté recebi ez beguira ditza-gun sori eztiraden ordenaçác, ikussiric ecen Romano garela <sup>18</sup>, grekoz: **kai;**

12. Ioannes Leiçarraga, *Iesus Christ gvre Iavnaren Testamentv berria*, Rochelan 1571. Ikus Th. Linschmann eta H. Schuchardt-en edizio kritikoa, azkenengoaren sarrera duela: *I. Leiçarragas baskische Bücher von 1571 (Neues Testament, Kalender und Abc)*, Strassburg 1900. Euskal Akademiak bultzat-uriko edizio faksimilezkoa ikus daiteke, Bilbao 1990.

13. Duvoisin: *Bible Saindua*, Londresen 1865: *Jerusalemetik heldu ziren Iskribau eta Farisau batzu*.

14. Duvoisin: *Bible Saindua: Jerusalemdarretarik* zembaitek erraten zuten.

15. Duvoisin: *Bible Saindua: Israeldar gizonak; Jesus Nazaretharra*.

16. Duvoisin: *Bible Saindua: Ethiopiar gizon ebaki bat*, Ethiopiako erregina Kandazen azpiko han-dietarik.

17. Duvoisin: *Bible Saindua: Italiarra* deitzen den ezkardan Ehuntari, Gizon *jainkotiarna*, eta be-re etche guziarekin Jainkoaren beldur zena, ...

18. Duvoisin: *Bible Saindua: Erromarrak* garen bezala.

kataggevlousin elqh a] oujk elxestin hJmi'n paradevcesqai oujde; poiei'n Rumaivoi" ou\sin.

"Apost. Acteac", XVII, 18: Orduan Epicuriano eta Stoiciano filosofo batzu <sup>19</sup> disputatzen ciraden harequin: eta batzuc erraiten çutén, Cer erran nahi du edasle hunec? Eta bercéc *cioiten*, lainco arrotzén eracusle dela dirudi: ceren Iesus denuntiatzen baitzerauen eta resurrectionea <sup>20</sup>, grekoz: tine;" de; kai; tw'n jEpikoureivwn kai; Stoi>kw'n filosofvwn sunevballon aujtw'/, kaiv tine" ellegon, Tiv aln qevloi oJ spermolovgo" ou\to" levgein... oiJ dev, Xevnwn daimonivwn dokei' kataggeleu;" ei\nnai: o\{ti to;n jlhsou'n kai; th;n ajnavstasin eujhggelivzeto.

"Apost. Acteac", XVII, 21: (Ecen Atheniano guciac <sup>21</sup> eta han egoiten ciraden arrotzac eçeinere berce gauçatara etziraden applicatzen, cembeit berriren erraitera edo ençutera baicen), grekoz: jRqhnaioi de; pavnte" kai; oiJ eipidhmou'nte" xevnoi eij" oujde;n e\{teron hujkaivroun h] levgein ti h] ajkouvein ti kainovteron.

"Apost. Acteac", XXI, 16: Eta ethor citecen discipuluetaric-ere batzu Cesareatic gurequin çacarqueitela berequin Mnason Cypriano iaquin-bat <sup>22</sup>, discipulu ancianoa, cein baithan ostatuz behar baiquenen <sup>23</sup>, grekoz: sunh'lqon de; kai; tw'n maqhtw'n ajpo; Kaisareiva" su;n hJmi'n, algonte" par jw\ xenisqw'men Mnnavswniv tini Kuprivw/, ajrcaivw/ maqhtw'.

"Apost. Acteac", XXI, 38: Ezaiz hi Egyptiano iragan egun hautan seditionebat viztu duana <sup>24</sup>, eta laur milla gaichtaguin desertura retiratu dituana?, grekoz: oujk alra su; ei\ oJ Rijguyptio" oJ pro; touvtwn tw'n hJmerw'n ajnavstatwvsa" kai; ejzagagw;n eij" th;n elrhmon tou;" tetrakiscilivou" alndra" tw'n sikarivwn...

"Apost. Acteac", XXVII, 2: Eta iganic Adramytteco vnci batetara, Asiaco comarquetara ioaitera parti guentecen, eta gurequin cen Aristarche Macedo Thessaloniceanoa <sup>25</sup>, grekoz: eipibavnte" de; ploivw/j Adramutthnw/ mevllonti plei'n eij" tou;" kata; th;n jAsivan tovrou" ajnhvcqhmen, olnto" su;n hJmi'n jAristavrcou Makedovno" Messalonikevw".

"Apost. Acteac", XXVIII, 17: Hirur egunen buruän dei citzâ Paulec Iudu principalac: eta bildu ciradenean erran cieçén, Guiçô anayeác, nic deus eguin ezipadut-ere populuaren contra edo aitén costumén contra, Ierusalemén presoner eguin içanic liuratu içan naiz Romanoén escuetara <sup>26</sup>, grekoz: jEgevneto de; meta; hJmevra" trei'" sugkalevsasqai aujto;n tou;" olnta" tw'n jloudaivwn prwvntou": sunelqovntwn de; aujtw'n ellegen pro;" aujtouv", jEgww, alndre" ajdelfoiv, oujde;n ejnavtison poihvsa" tw' law' h] toi'" elgesi toi'" patrw/oi" devsmio" ejx Ierosoluvmw'n paredovqh'n eij" ta;" cei'ra" tw'n Rumaivwn.

19. Duvoisin: *Bible Saindua*: Zembait filosofo *Epikurotiar* eta *Estoiziar*.

20. Leičarraga-k *cioiten* hitza letra italikoz emaiten du, zeren textu grekoaren gorputzean ez baita agertzen, zentzu hori berezkoa izanik.

21. Duvoisin: *Bible Saindua*: *Athenestar* guziek.

22. Duvoisin: *Bible Saindua*: *Mnason Ziproarra*.

23. Leičarraga-k *batzu* hitza letra italikoz emaiten du, zeren textu grekoaren gorputzean ez baita agertzen, zentzu hori berezkoa izanik.

24. Duvoisin: *Bible Saindua*: Etzare zu, ... *Egiptoar* hura?

25. Duvoisin: *Bible Saindua*: Aristarko, Thesalonikako *Mazedoniarra*.

26. Duvoisin: *Bible Saindua*: *Erromarren eskuetan*.

PRAI BARTOLOME <sup>27</sup>

42 orr.: Beste ainbeste esaten da, nai Eleisiaren Burubac cristinaubai, nai Juezac bere aguindupecuai, nai ugazabaac otseguinai, nai gurasuac umiai eragotzita dauqueen demporean, olgheetia gaiti. Bada oneec guztioac dauquee escubidia, bacoachac bere lecuban, aguinduteco; ta aguinduban dagozanac, obeidu biar deutsee errazuazco ordeneetan. *Ninivetarrac* eguin even leguez.

111-112 orr.: Umia nintzarian, Biguira baten edo bitan neuc icusi, ta entzun nituban ziquinquerijaac ez ezcaratz, baztar baten, edo apartian isilic, ez bada oguetaz lagun asco nesca, ta mutil egozan ezcaratz betian claru guztien aurrian, ezin esan legui, ce ezainac cirian. Umecondua nintzan, baina ondo daucat goguan, noc cer esan evan, ta cer eguin evan, ta celan guztiaac olgheetan cirian. Ezdira bada predicadoreen pulpitoco esanagaz inocenteen vegijac arguituten; ez bada ceubeen echeetaco verba, ta eguite deungueequin. Biguiriaren demporia da gava. Gavaz juan, gavaz ibili, ta gavaz etorri. Emacume ezconduric inos bere ez, edo chito nequez. Guizon ezconduric bere ez, berdescaren batzuc ez bada. Mutilac, eta nescaac dira, illuna baino beste testiguric ezdauqueela, cein, baino, cein nasaijago, ta lotsa galducuago, Biguiria eguiten daveenac. Biguiraan eguiten dira olgheeta modu asco dantziaz, ta pandanguaz ostian. Oneen icenac ondo daquijeez *baseerritarrac*, nic esan bagaric bere. Baina guztiaac dira desonestubac, ta chito ezainac.

117-118 orr.: I. Sarauco gentiaren jantzi armatuba gaiti. Bada gente apainduba, ta ondo baino obeto apainduba juaten da andiquijeen Biguirara. Ezdinot ecer, araco bularrac, idunac, ta besuac aguirijan, edo guztiz aguirijan baino, araguijaren sugarrijago, Andiquijeen Biguirara daruezan andra, edo nesca loijac gaiti. Ez bada dinot, Caballero, edo Zaldun, Señora, edo Dama, dana dala, juaten dala, ondo apainduta Biguirara. II. Andiquijeen aziera biguna, ta leuna gaiti. III. Eureen malecija aurreratuba, ta gacheraco jaquiturija *goixtarra* gaiti.

137-140 orr.: Au obeto aituteco, gogoratu biardogu naasteco dantceen asieria, ta celan cristinau errijeetara etorri zirian. San Ciprianoc, ta San Isidoroc esaten davee: Guizonac, eta emacumiac engaineetaco, bere sarian sartuteco, ta impurnura eruatenco, demoniuac asmau citubala dantzaac. San Ambrosioco dino: Munduco jaquitunen erichijan ordiquerijac, ta zoraquerijac ecarri ditubala dantzaac. Beste batzuc, seinalleetan deutsee dantzai erne lecuba. Ta esaten davee: Danen tribu, edo Castati datozala dantzaac. Oneec dinue: Danen castucac ziriala, araco, urragorriczo idiscua emacumeen cirzilibaquin eguinda, *Isrraeltarrai* mendijan Jaungoicotzat adorau eraguin eutseenac; ta Jaungoico eguijazcua ucatuta, dantzan eraguin eutseenac. Dan gaiti Espiritu Santubac esanda, dauca: Suguia leguez, edo sierpia leguez izango dala bere castia. *Fiat Dan, sicut colober in via, et sicut cerastes in semita*. Danen casta galdubari ezarri eutsan Jaungoicuac maldecinoia: Suguia leguez, edo sierpiac leguez, pausu eguiteco, ta ibilteco. Bada munduban bada guiza castaric, suguia leguez davilenic, dantzaarijac dira. Dantzaarijac daviltz, suguia leguez, edo sierpia leguez, giraca, ta oquerca, buru zitala (Aurescuduna) an sartu, ta emen atera, batian ezcutau, ta bestian aguertu, ain laster onduan,

27. Aita Prai Bartolome, *Euscal-errijetaco olgheeta, ta dantzeen neurriczo-gatz-ozpinduba*, Iruñean 1816.

cein guerrijan daravilela. Dantziaren giraac bere guztiac dira ezquerrera cuac, ceindan, pausu eguitemo, ta ibiltemo, alde madaricatuba Escritura Sagraduban. Danen casta gaistoti datorrelaco, emoten jaco dantziari oneetaco verbeeta ascotan bere erico icena. Bada *Eusqueeraz, Erdeeraz, Prances, Italiano, Teutonico*, ta beste ascotan, dinueenez, *dantzia, dantza, danse, danser...* esaten jaco olgueeta indecente ari.

142-143 orr.: Apostulubac, gentil asco viurtu, edo écarri arren Evangelijoco sinistute, ta legue garbira, ta zucenera, gueratuten cirian cristinau barri-jac ge<n>tileen artian. Esateco moduban: Erri baten beegozan berreun, edo irureun cristinau barri; beste bost eun, edo seireun gentilac cirian, Evangelijoco Santura viurtu ez cirianac. Ereen Jaungoico paltso eguneetan, leenago leguez, olgueeta ardaotsubac, loijac, ta odolotsubac euqueezanac. Au eracusten deuscube mundu guztico jazuac. Ta au berau iracurten dogu gueure Españacuetan. Evangelijoco Santubac, ta Eleisa Ama Santiaren Ordenaac eragozten eutseen cristinau barri-jac, gentileen diversinoetara juatia. Ta aguindu eutseen devocinoe Santu bategaz, ta espiritu egijazcuagaz ondrau eguijeezala Jesucristo, gueure Jaunaren, Ama Virgina guztiz Santiaren, Apostolu Santubeen, ta Martirijeen egunac, Cerubari gracijac emonagaz, ta caridadezco, ta onestidadezco alegrija santa bategaz, gentileen itsutasuneetati, ta pecatubeeetati Jesucristoc librau zituba<la>co. Au onan Eleisiac aguinduta, egon arren; Cristinau barri guztiac ez cirian Santubac. Gusteetan jacuezan sabelaren, ta araguijaren eraco olgueetac. Ta icusteen citubeen leguez Cristinau barri-jac, eureen senidiac, auzuac, ta *erritar gentilac* Jaungoico paltso eguneetan olgueetan nasai, eurac bere asi cirian, euren santu eguneetan Eleissan Santubac ondrauta, Eleisacua eguinda guero, plazaan gentileen olgueetac eguiten. Onaco gueure santu egunetaco olgueetac, gurasuetati umeetara, guiza alderic [sic] guiza aldira eldu dira gueure demporaguino.

#### ECHEPARE <sup>28</sup>

Ez du biltzen hitzik, dirudienez, gentilizioak egiteko erabiltzen den *-(t)ar* berrekailurik duenik, erratu ez baldin banaiz begiratzerakoan. Ez du, ezta ere, ez *-ano* eta ez *-anu* berrekailurik.

#### DUVOISIN <sup>29</sup>

Apost. Egintzak, II, 11: *Juduek* ere, eta proselitek, *Kretarre* eta *Arabiarrek*, guziek gure mintzayetan erantzuten aditzen diozkategu Jainkoaren sendagaila handiak <sup>30</sup>.

28. *Linguae Vasconum Primitia per Dominum Bernardum Dechepare Rectorem Sancti Michaelis veteris*, Bordelen 1545. Ikus faksimilezko edizioa: *El primer libro impreso en euskera (año 1545)* (Con una introducción bio-bibliográfica de Nicolás Alzola Guerediaga y la primera versión castellana, debida a Lino de Aquesolo y Olivares, Edición separada de La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao 1966.

29. Duvoisin: *Bible Saindua*, Londresen 1865.

Duvoisin: *Laborantzako liburua*, Bayonan 1858. Hordago-k Donostian 1978 urtean eginiko edizio faksimilezkoa ikus daiteke.

30. Leizarraga: II, 10. ...eta *Iuduéc* eta *Proselytoéc*, *Cretianoéc* eta *Arabianoéc*: II, 11. Ençuten ditugu hauc gure lengoagez minço diradela laincoaren gauça magnificoetz, grekoz: II, 11. *jjIoudai'oiiv te*

Apost. Egintzak, IV, 36: Josepek ere, Apostoluek Barnabas deithu zutenak (horrek erran nahi baitu Gozakarizko umea), zeina *lebitarra* baitzen eta sortzez *Ziproarra* <sup>31</sup>.

Apost. Egintzak, II, 5: Bada orduan Jerusalemen baziren *Judu jainkotiarrak*, zeruaren azpiko jendaki guzietarikakoak <sup>32</sup>.

### DUVOISIN, Laborantzako liburua, Bayonan 1858:

Mur de Abadi: Eskaldun zure *herritarrek* aspaldidanik dakite berei ekhar-tzen diozuten amodioa.

Mur de Abadi: Nork bere herriari zor dio ahal duen laguntza. Aria hortaz, nik ere eskaraz ezarri ditut laborantzaren gaineko argitasun batzuek, gu-re *herritarrentzat* premia zirenak.

194 orr.: Franklin deitzen zen aiphamen handitako Amerikano batek ¿zer egin zuen bere *herritarrei* erakustekotzat nolakoa den igeltsuaren indarra?

58 orr.: Chehetasun hori kausitzen da *Larrondo Atharraztarrak* egin izan zuen liburu batean. Erakusten du harek zer makhur handiak diren, herritik herrira, bakhotcharen goldean.

60 orr.: Erran den *Larrondo Atharraztarraren arabera*, Bayonako eta Uz-taritzeko kantoinamenduetako herrietan, goldeak badagokitza 41 ara eta 88 zantiara iraganik.

319 orr.: *Burzuntzari* ematen diote asko izen: *zur-churia* deitzen dute hainitzek, *Probentziarrek makala*, *Nafartarrek tchipoa*.

313 orr.: Oihanetarik ez-da jabearentzat bakharrrik on handia, baina bai herriko *egoiliar* guzientzat ere <sup>33</sup>.

83 orr.: *Etchetiarrek* bereziki egiten dute eder-ez-den bezala. Alferra nau-sitzen zayote; bihotz gaichtoa ere bai.

83 orr.: Bertzeentzat, zeren ondotikako *etchetiarrak* eta nausiak lur-rak hoztuak kausitzen baitituzte.

87 orr.: Hutsik handiena egiten dute beren lur-rak etchalde ttipitan eza-rriz. Leheneko etchaldeak ere handiegi zaizkote. Zathitzen dituzte bi puzke-tan. *Etchetiar* on baten lekhuana, bi erromes andana sartzen dituzte.

88 orr.: Horra nondik heldu diren *etchetiar* aldatzeak, lur hozteak eta bertze hainitz gauza tzar.

87 orr.: Berentzat lehembizikorik, zeren makhurrik baizik ez-baitute be-ren *etchetiar* tcharrekin; ez-diote deusere aintzinatu nahi, beldurrez gal beren

kai; proshvlutoi, **Krh'te**" kai; "Arabe", ajkouvomen lalouvntwn aujtw'n tai'" hJmetevrai" glwvssai" ta; megalei'a tou' qeou'.

31. Leizarraga: Iosesc [sic] bada, cein icen goiticoz dei baitzedin Apostoluéz Barnabas (erran nahi baita consolationezco semea) *Leuitác*, nationez *Cyprianoac*, [possessione bat nola batzuen ...], grekoz: *jlwsh;f de; oJ ejpiklhqe;i*" *Barnaba*" ajpo; tw'n ajpostovlwn, oJ ejstin meqermhneuovmenon uiJo;" *paraklhvsew*" *Leuivth*" *Kuvprio*" tw' gevnei.

32. Leizarraga: Eta bacén Jerusalemen egoiten ciraden *Iudu Iaincoaren beldurra çuten gui-çonetariç*, ceruaren azpico natione orotariç, grekoz: *Hsan de; eij*" *Jerousalh;m katoikou'nte*" *jloudai'oi*, *alndre*" *ejjlabei*" ajpo; panto;" *elqnoy*" tw'n uJpo; to;n oujranovn.

33. Ikus baita-ere *Orotariko Euskal Hiztegia*, eta *Diccionario Retana de Autoridades del euskera*, haietan informazio gehiago emaiten baita. Agian formazioaren aldetik *-liar* berrekailua *-(i)le* + *-ar* elementuez osaturik dagoke, hau da, *egon* verbotik sorturiko *egoile* + *-ar*, hurrengo aipatzen den *-tiar* de-lakoaren analogiaz, eta *-tiar* bera ere *-ti* + *-ar* izan liteke, hau da, *jainkoti* + *-ar* = *jainkotiar*, zeren bai *-(i)le*, eta bai *-ti*, printzipioz bizidun zentzukoei, eta bereziki pertsonai, baitagozkie, *-(t)ar* gentilizioen formatzailearen era berberean.

dirua. *Etchetiarrak* ere eskugainik-gabe, bere nausiaz ez-lagundua, urthe tcharretan ahal duena egiten du, bere ezin-biziarekin; askotan nausiari bidegabe.

89 orr.: Etchalde hetan eremu gutiago izanen da bihitan: bainan ez-du horrek galduko nausia ez-eta *etchetiarra*.

157 orr.: Egun haukietarik batez gure hauzoko *etchetiarrak* ongarriztatu behar zukeen bere arthoa; bainan udazkenean eritasunez galdu zituen bere aziendak.

255 orr.: Uste nuen erraitera zinhozela merkhatuko idiek iduri dutela aldaka dabilzan *etchetiarrak*, lan on guti dabilzan tokietan egiten dutenak.

10 orr.: *Jornaltiarrak* jornaletetik hazi behar ditu bere haurrak: bainan hauzoak hauzoari esku ematea zor dio; saritzat izanen du bere aldian hauzoaren laguntza.

### LARREGUY <sup>34</sup>

1. X Capitulua, 37 orr.: Banitatearen lan harc, dio S. Bernatec, eçagut-arazten-çuen munduac guerorat aguerturen-çuen çoramendua; ecen iduri-du *mundutiarrec* ez dutela bertce gogoetaric, baicic nola altchaturen duten dorre bat Jaunaren justiciatic beiratuco-dituena, eta haren botherea alfer eraginen-dituena.

2. XXXVI Capitulua, 208 orr.: Samariaco bazterretan gaindi iragan-cen Salbatçaillea Yerusalemeracoan. Yuduen alderaco *samaritarren* herrakhundea hain cen handia non ez baitçuten nahi içan utci Salbatçaillea herri batean sartcerat, eta hori, ceren çohan Yerusalemerat.

### URTE <sup>35</sup>

Móisseren lehenbico Libúruä. Ineraçiónea edo ethórquiä deithüä, 18-24 orr.:

X, 14 Pathrusim, Chasluhim [çegnenganic Ilkhi báitire *Philistintarrac*] eta Capthorim <sup>36</sup>

X, 15 eta Canaanec içatu çuen Sidon bere lehen semea eta Heth:

X, 16 *Iebussiarrac*, *Amorrhearrac*, *Guirgasçiarrac*,

X, 17 *Heuiarrac*, *Harkiarrac*, eta *Siniarrac*,

X, 18 *Aruadienarrac*, *Temarriarrac*, eta *Hamatiarrac* eta ondoan barraiatu dire *Cananearren* famillac <sup>37</sup>.

34. *Testamen çaharreco eta berrico historia*, M. de Royaumontec eguin içan duenetic berriro escarat itçulia (Lehenbico liburua), Bayonan 1775, (Bi-garren liburua), Bayonan 1777. Hordago-k Donostian 1978 urtean eginiko edizio faksimilezkoan ikus daitezke.

35. Pierre d'Urte, *Bibliä Saindua*, Oxford 1894 (*Anecdota Oxoniensia, the earliest translation of the Old Testament into the basque language (a frangment) by Pierre d'Urte of St. Jean de Luz, circ. 1700*).

36. Duvoisin: *Bible Saindua: Filistindarrak eta Kapthorimarrak*.

Vulgata: *de quibus egressi sunt Philistiim et Capthorim*.

*Biblia sacra, juxta Vulgatam Clementinam, divisionibus, summariis et concordantiis ornata*, Desclée et socii, Edit. Pont., Romae - Tornaci - Parisiis, 1938. Denuo ediderunt complures Scripturae Sacrae Professores Facultatis theologiae Parisiensis et Seminarii Sancti Sulpitii.

37. Duvoisin: *Bible Saindua*: Kanaanek izan zituen Sidon, bere seme zaharrena, Hethe, Jebuse, Amorrhe, Jerjefe, Hebe, Araze, Sine, Aradi, Samare, eta Amathe, eta horietarik barrayatu ziren *Kananearren* jendayak.

XII, 6 eta Abram iragan ičan çen herritican Sikemeco lekburagno eta Moreco çelhaieragno, eta orduan herrián çiren *Cananearrac* <sup>38</sup>.

XIII, 7 hargatican mobitu çen dispúta Abranen arthaldearen artçagnen artean, eta Loten arthaldearen artçagnen artean, eta orduan çeuðeçen *Cananearrac* eta *Pheressiarrac* herrián <sup>39</sup>.

XIV, 7 guero bihurtu çiren eta ethorri çiren Misçpatco Henera, çegna báita Kades eta eguin çuten *Hamalekitarren* herri guçiá, eta *Hamorrhoeonarrec* ere Hatsatsontamarren çauðeçenec <sup>40</sup>.

XIV, 13 handic itçuri ičan çen çembéit, ethorri çen Abram *hebreärria* abertitçera, çegna egoten báitçen Mamre *amorrhearren*, Eşçolen eta Haneren anajaren Lanoteguiétan, çegnac báitçiren Abranequign Iuntátuac <sup>41</sup>.

#### LAPITZE <sup>42</sup>

LEHEN PHARTEA, 1 orr.: San Iñazio gerlari eta *mundutar*.

Lehen parte, III, 10 orr.: «Biba Henri Albretecoa! diote *Nafartar soldadoec*. Biba Nefarroco erregea! biba *Frantses armada!*»

2. parte, VII, 66 orr.: «Ah Hescualduna zare? ez izan beldurric, adichkidea, ontsa ekharrico zaitugu. Ni ere sortzez Hescualduna naiz, eta ez dut nic *herritar* bat nola nahi uzten.»

3. parte, IX, 122 orr.: Parisen, escoletaco nausi guzien artean ethorkizunic ederrenecoa, *Nafartar bat* zen, filosofiaren eracutsle Bobeseco escol-etchean.

4. parte, II, 151 orr.: «Ene anaia maiteac, neure ustez seculacotz utzi zintuztedan; bainan contzientziaco arrangura batzuec ekharri naute zuen arte-rat. Aspaldian erraiten zarotan botz batec, gazte zoro agertu nintzen tokian behar nuela agertu zentzatua, urrikitan sarthua. Gure Jainco jauna egun oroz othoizten dut eta nigar auhentan othoizten, ahantz ditzan ene gaztetasuneco urtheac. Zuer ere, *herritar* maiteac, barkhamendu galdatzen darotzuet, eta othoizten zaituztet zuen othoiztetan Jaincoari gomenda nezazuen.

4. parte, III, 161 orr.: Loiolaco premu Jaunac ez zezaken ikhus *Loiolatar* bat, anaia maite bat, oinez bideari lotzen, escale bat bezala.

4. parte, VI, 176-177 orr.: «Zuetaric bakhotchac, anaia maiteac, atzarria behar du egon, ardi larrua dakharren otso baten contra. Zer mintzo naiz ar-

Vulgata: *Chanaan autem genuit Sidonem primogenitum suum, Hethæum, et Jebusæum, et Amorrhæum, Gergesæum, Hevæum, et Aracæum, Sinaeum, et Aradium, Samaræum, et Amathæum, et post hæc disseminati sunt populi Chananæorum.*

38. Duvoisin: *Bible Saindua: Kananearra* zagoen orduan ephaitza hekietan.

Vulgata: *Chananeus autem tunc erat in terra.*

39. Duvoisin: Bada orduan *Kananearra* eta *Pherezearra* egoten ziren aurkhintza hartan.

Vulgata: *Eo autem tempore Chananeus et Pherzeus habitabant in terra illa.*

40. Duvoisin: eta chehatu zituzten *Amalektarren* tokiak eta *Amorrhearrena* zeinak baitzauden Asasonthamarren.

Vulgata: *et percusserunt omnem regionem Amalecitarum, et Amorrhæum qui habitabat in Asason Thamar.*

41. Duvoisin: Eta huna itzuri zirenatarik batek jakintsun egiten duela Abram *Hebrearra*, zeina baitzagoen Mambre *Amorrhear*, Eskolen anayaren eta Anerren haranean.

Vulgata: *Et ecce unus qui evaserat, nuntiavit Abram Hebræo, qui habitabat in comvalle Mambre Amorrhæi, fratris Eschol, et fratris Aner.*

42. *Bi saindu hescualdunen bizia: San Inazio Loiolacoarena eta San Franzizco Zabierecoarena*, Bayonan 1867. Hordago-k Donostian 1978 urtean eginiko edizio faksimilezkoa ikus daiteke.

diz? Artzainaren itchura dakharre. Munduz mundu dabila, bere iduri batzu ondotic. Nihon ezin cocatuz, Errumarat ethorria da, eta Erruman, Jaincoaren arthaldean, zer sarraskiac egiten dituen, Jaincoac berac daki. Gezurrigachtoena, egiaren itchura dakharren gezurra da. Parisetic, Alcalatic, Benizetic, orotatic, ihes dabila Iñazio, gaztiguen beldurrez. Errumaco hiriac gutiago atchikitzen othe du bere fedeari, bertze hiriec baino? Erruman berean, bere *herritar* batzuec, haren gezurrer ohartu diren bezain laster, bazterrerat utzi dute.»

Lehen partea, I, 1 orr.: Don Beltramo Oñez Loiolaco Jaunac *Bizcaitarra* zuen Andrea doña Marina Saez de Licona, etxe handi batetaco alaba.

Lehen partea, III, 9 orr.: Bazakien Iñazioc *Nafartarren* berri. Bazakien anaia batzu bezala iguricatzen zituztela *Frantsesac* eta beldur zen haren soldadoac, gehienac *Nafartarrac*, Frantsesen alde itzul zituen. Ikhusten zuen galdua zela *Frantsesec* oseba aintzintzen balimbazuten.

Lehen partea, III 9 orr.: Iñazioc beldurra zuen bezala *Frantses armada* bozcarioekin hartu zuten *Nafartarrec*.

2. partea, IV, 51 orr.: *Manrezatarren* nigarrec hautsi zioten bihotza.

2. partea, VII, 63-64 orr.: Hotz handiac ziren. Bertze soinecoric ez zuen Iñazioc Manrezan eman ziotena baizic, dena ere philda tchar bilhacatu. Capa bat ere eman zioten Manrezan; zer egin othe zuen capa hura? Aparachu hortan hatzeman zuen Benizeco Hescualdunac. Hamabortz urrhe harrarazi ziotzan, eta oihal bero batetatic estomaca gaineco. *Herritarrari* eskerrac emanic, oinez abiatu zen Espainia alderat.

3. partea, V, 101 orr.: Apez saindu bati entzunic Flandresen bazirela *Español* anhitz, ahalgoz eta borondate onez beteac, Flandreserat juan zen bere *herritarretatic* zerbait ahal zukenez.

3. partea, VI, 104 orr.: «Don Iñazio, nahigabe handiric emaiten duzu zure jendekiari. Zure jendekia aphaldua dagocazu zure bizitzeco moldeaz eta eske ibiltzeco duzun thema gachtoaz. Ez da hori zure sortzeari eman dena. Jendec zer nahi duzu erran dezaten zure etchecoez? Erranen dute edo zure haztecoric ez dutela, edo zure alderat bihotz gabe direla; gezurra batean eta bertzean; ezic *Español* guziec badakite ontasunez eta bihotzez zoin diren aberats *Loiolatarrac*.

3. partea, IX, 122-123 orr.: Handic harat, oren on baten beha zagon *Nafartarrekin* solhasean sartzeco. Franzizco Zabierecoa aitaren aldetic *Garaztarrara* zen, amaren aldetic *Baztandarra*. Jatsuco Jauna zuen aita, Azpilcuetaco andrea ama. Zabiereco jauregian sorthu zen, Apherilaren 17<sup>an</sup> 1506<sup>an</sup>. Zabierecoa deitzen dugu, Zabiereco jauregia bere erorkia zuelacotz; *Jatsuarra* deithuco ginuen bertzenaz.

5. partea, VII, 228 orr.: Apherilaren hamabortzean, 1552<sup>an</sup> egin zituen adioac *Goatarrer*; eta hazilaren lehentsuan jautsi zen Zanzianerat. Isla bat da Zanziane, Chinatic hurbil.

3. partea, III, 87 orr.: Escaleac paperra hartzen du eta hitz hauc iracurtzen: «Don Martin Saëz, *Azpeitiarra*.»

4. partea, I, 147 orr.: Gure sainduac Azpeitian behar zuen iragan. Azpeitiarat hurbiltzean, *Azpeitiarrac* ikhusten ditu bi lerrotan jiten, jaun aphezac eta herrico buruzagiac aitzinean.

5. partea, III, 201 orr.: «Ene Aita, hasi Comoronetic, eta Manaarrec islaraino bazinuke zer egin. *Palabarrac* deitzen dituzte hango populuc; arrantzale pobre batzu dire, *moroec* lehertuac dagozcatenac, eta *moroen* contra *Portugesen* laguntza ukhaitea gatic, girichtino bilhacatu direnac. Bainan

girichtinoarenic ez dute izena baizic, eta aphez galdez daude, girichtino egiazco nahiz bilhacatu.»

ETCHEBERRY <sup>43</sup>

*Jesu Christoren bicia eta istorioa*, 4. capitulua, 197 orr.: Phazco phestac ondoan Jesus ibili cen Judean harat eta hunat, asco jendec hura baithan sinhetsi zuten eta bathaiatuac izan ciren. Guero Nazaretherat izuli nahi izan zuen; bada hortaco behar zuen iragan Samariaco lurean gandi. Heldu izan cen beraz Sichar deitcen cen hiritto batera nun aurkhitcen baitcen phutzu edo ithurri chillo bat bertce orduz Jacobe patriarkhac eguina: Jesus bidean unhatua jarri cen haren ondoan, eta dicipuluac egorri cituen hirirat jateco erosterat. Jesus bada han zagoelari jarria, *samaritar emazte bat* harat ethorri cen urketa. Jesusec erran cion: Emadazut edaterat. (Orduan *Samaritarrac Judeatarrez*, edo bertcela errateco *Juduez*, arras gaizki ikhusiac ciren.) Emazte hura pichca bat espantitu cen eta ihardetsi cion Jesusi: Jauna, *Judeatarrec* ez dute deusic nahi *Samaritarrekin*, nola beraz zuc judua zarelaric galdetcen de-  
rautazut edaterat?

6. Capitulua, 212 orr.: Jesus juan cen Naïnm deitcen cen hiri baterat; dicipuluac eta bertce asco jende haren ondotic zohaztzen. Bada hirico borthetara helcen cirelaric, aitcintera citzaioten hil bat ehortzterat zaramatena, ama alhargun baten seme bakharra. Ama doloratua nigarretan zarraicon *hiritar* ascorekin.

8. capitulua, 221-222 orr.: Ja erran dugu nola Herodes Galileaco erreguec emaztetzat hartu zuen legue contra, Herodiada bere anaia baten emaztea. Nola Joanes Batistac goraki cion adiaraci Herodesi hortan cer gaizki itsusia zuen eguiten, cerrolaric: Etzauzu haizu zure anaiaren emaztearekin hola bicitcea. Gauza horren aditceac Herodes hasarre gorrian eman zuen eta Joanes-Batista preso harraraci zuen; horrela ichilic egonarazteco. Bainan hori etcen aski Herodiada ematzar harentzat; mendekio gosez, bilhatcen zuen ocasione bat profeta handi haren hilarazteco. Hor ethorri cen Herodesen sor eguna ceintan erregue horrec bazcari handi baterat bildu baitcituen Galileaco handi guciac. Herodiadaren alaba dantzari aritu cen *bazcaltiar* gucien aitcinean eta gucier agradatu citzeien.

Lehen capitulua, 181 orr.: Bizkitartean populua campoan zagon guait Zacharias noiz atheraco cen eta ja berantetsia zuen; bainan noiz bait aguer-  
tu cenean etcitaken mintza, eta haren kheinuetaric ezagutu zuten ceruticaco aguertce bat temploan guerthatu citzaiola. Temploan aphez eguinbidetan eman behar zuen dembora bethe cenean, etcherat bihurtu cen. Hantic sei hilabetheren buruan Gabriel ainguerua izan cen egorria Nazareth Galileaco hiri chumera, Birgina batengana, ceina baitcen lureco ontasunez pobre, bainan aberats berthutez. Birgina hura deitcen cen Maria, senharra zuen Joseph guizon *Jaincotiarra*, oficioz zurguina, Maria bezala Dabiten arrazatic cena.

6. capitulua, 205 orr.: Dohatsu gogoz pobre direnac, ceren heiena baita ceruco erresunma. Dohatsu ezti direnac, ceren lurraren jabe baititazke. Do-

43. *Testament zaharreco eta berrico istorioa*, Frances liburu aphezpicuec onhetsia den baten gainean hescuaraz eguina Etcheberry aphezac, Bayonan 1874.

hatsu nigarretan daudenac, ceren contsolatuac izanen baitira. Dohatsu justiciaren (erran nahi berthutearen, prestutasunaren) gosea eta egarria dutenac, ceren aseco baitira. Dohatsu urricalmendutsuac, ceren berec ere urricalmendu ardietsico baitute. Dohatsu bihotz garbidunac, ceren hainec ikhusico baitute Jaincoa. Dohatsu *baketiarrac*, ceren hec deithuco baitira Jaincoaren haurrac.

#### HARIZMENDI <sup>44</sup>

MATVTINAC, INCARNACINOAZ, 45 orr.

Ecen Iaunac du placera,  
Bere genden gainean:  
Gutziz ere gende manso,  
*Baquetiar* denean.

76 orr.: Haurric etçuen amari,  
Emaiten dio haurra:  
Eta ama gelditcen da,  
Bocic *etçetiarrra*.

#### MAISTER <sup>45</sup>

IACOURÇALIARI, XV orr.: Haur duçula, ene iracouçale maitia, çouregatic çoure lengouagiala utçuli içan de librubat, çougn mundu ororen erraniala, escriptura sainta berheçten delaric, beita, bere salbamentia eguin nahi dianaren, içaten ahal den libruric hobena, eta baliouseña; hartacoç ere eçtuçu heldu-bada batere haboro lengouagetara utçuli içan denic, (hagnbestera drano jouan içan duçu, sokhorri eçpiritual houen bat bederac bere herriari emaiteco ukhen dian nahicune borthitça) arraçou horrec berac saldouatan desira eraci deyo lan hounen eguiliari, bere *herritar* gachouer sortcepenensco lengouagia baicic eçtadianer sokhorri berauren emaitia, ousteç Jincouaren bide hersian ebiltia, bere buriaren aphal etçhekitia, mundiari guerla thai gabeçcobaten eguitia, eta celialaco imbeya saintubaten ukheitia, libru hounen medioç içagut eraciric, bere salbamentiaren eguitera erakharriren çutian: bena bere flakheciaç loxaturic egon içan da thempora luçaç benturatu gabe bere desircuntiareren complitcera.

Lehen libria, XIV capitulia, 2, 35 orr.: Aski ardua aharrac jaikiten dira adichkiden, eta *herritarren*, religiousen, eta deboten artian, sendimentu bate-taco eçtirelacoç.

#### OLAECHEA <sup>46</sup>

167 orr.: Yzan arren barriz eusquera au gueien Vizcaian usetan dana, eta *Vizcaitar* guztiaç erraz iracurri, eta entendiduco davena, alambere erri guz-

44. C. Harizmendi, *L'office de la Vierge Marie*, 1658. Ikus Julien Vinson-ek 1901 urtean eginiko edizioa. Hordago-k Donostian 1978 urtean eginiko edizio faksimilezkoa ikus daiteke.

45. *Jesu-Kristen imitacionia Çuberouaco uscarala, herri beraurtaco apheç bateç, bere Jaun apheçcupiaren baimentouareki utçulia*, Pauben 1757.

46. DOTRINA CRISTIANEA, D. BARTHOLOME *Olaechea* Laucarizco Cureac bere Elesatean Jai Domeca guztietan expliquetan davena leguez. OFRECJETAN, ETA dediquetan deutso D. *Nicolas*

tietaco modura, eta guztien gustora onelango liburu chicar baten ecin escribidu lei.

MENDIBURU <sup>47</sup>

LEMBICICO OTOITZ-GAIA, III, 12 orr.: Eguia hau aitortu zuen lurrean izandu den Erregueric andienac, eta guizonic jaquintsuenac. Ba-daquizu cein den hau? Salomon. Jaio cen Salomon bere Aita Erregue Daviden Echean. Aguertu-orduco, eguin cioten, eguin ala emaguñiac, eta *Erreguin-darrac*; izan etcezan, aur jaio berriac izan oi duten, nequeric, edo haren orduco nequeac arindu naiez: «Baña lur loiezcoa izan ni (dio berac) besteac bezala; ta asi behar nic ere, nai, ta-ez, gañeracoen eran. Orre gatic artcen asi-orduco ni, guciac artcen duten lurreco, aice hau, asi nintzan ni ere negarrez, ta carraisiz, besteac bezala: orduan nic ecin neguiquen hau besteric; hau da alabaña Erreguen, ta gañeracoen asiera. Ez da certan ibilli (dio azquenean), onetan ta bucaeran bat dira, ta berdin batac, eta besteac». *Sapient.* 7.

HIRIBARREN <sup>48</sup>

Hirugarren Capitulua ESKAL HERRIA, 57 orr.:  
Izatu Zaragozan setio ematen;  
Eskaldunec han arte deusic ez eguiten;  
Guibelacoan zuen erre Iruñea  
Eta asaldan eman *menditar* semea.

ANDRE DENA MARIAREN IMITACIONEA <sup>49</sup>

III. Capitulua, 9 orr. Jingo handia! ene haraguiarequin orhaçaçu çure beldurra. Icialdurac erne itchiquico nau; eta ene atçartassunac gudu gucietaric *garaitiar* ilkitzeco çoriona ardiexico darot.

CHOURIO <sup>50</sup>

3. liburua, VIII, 215 orr.: Capitulua. Iauna, osoqui çure ganat itçularaz gaitçatçu içañ gaitecençat esquer emaille, humill, *Jaincotiar*; ecen çu çare gure salbamendua, gure indarra, eta berthutea.

Bilbao, 1996 maiatza.

*Antonio Landazuri*, Laucarizco, eta Bilboco Elexetaco Beneficiau, eta leen Begoñaco, eta orañ Jandone Cueco Cura Jaunari. Imprimidu da Vitorian bear direan licencia guztiacaz, Thomas Robles ta Navarroyen etsean. Liburuchu onec daucazan Capituluetic bat, nai bat irakurri, edo enzuten dan bacochean irabazten dira 40 eguneco Indulgenciac, alan dauco esanic, eta concediduric Calaoarra eta Calzadaco Obispo Jaun Don Andres Porras, ta Temesen mesedeac Placenciaco Urian Abèduan ogueta seigarrean, urte 1763.

47. A. Sebastian Mendiburu, *Jesusen amore-nequeei dagozten zembait otoitz-gai*, I., Iruñean 1760.

48. J.-M. Hiribarren, *Eskaldunac*, Bayonan 1853. Hordago-k Donostian 1979 urtean eginiko edizio faksimilezkoa ikus daiteke.

49. *Andredena Mariaren imitacionea Jesus-Christoren imitacionearen gañean moldatua*. Bayonaco Diocezaco Yaun Apez bateg *Francsetic*, Escuararat itçouliya, Bayonan 1778.

50. M. Chourio, *Jesu-Christoren imitacionea*, Bayonan 1788. Hordago-k Donostian 1978 urtean eginiko edizio faksimilezkoa ikus daiteke.

## LABURPENA

Lan honetan zenbait autoreren textuen zerrenda emaiten da gentilizioak letra italikoz markaturik doazela. Formak, beraz, autore bakoitzak emaiten dituen erara agertzen dira besterik gabe.

Denbora berean Ifarraldean baizik erabiltzen ez diren *-tiar* eta *-liar* berrekailuak ere ikertzen dira: *goiztiar, kaltiar, etxatiar / etxetiar, jornaltiar, jainkotiar, bazkaltiar, baketiar, mundutiar, herriar*, eta beste alde batetik *egoiliar*, eta baita-ere Duvoisin-en baitan biltzen diren *Epikurotiar* eta *Estoiziar* [sic] ere.

Izan liteke *-tiar* berrekailua bi elementuz osaturik egoitea: *-ti* eta *-ar*. Izan-ere *-ti* berrekailuak bizidunei, eta bereziki pertsoneri, dagozkien hitz derivatuak sortzeko balio du leku-denborazko deklinabideari ez dagokion esparruan, eta erabiltzeari dagokionez distribuzio komplementarioz agertzen direla bata eta bestea erran liteke: *negarti, ezkertti*, eta abar, alde batetik, eta ablativoa den *etxeti* (*urten, etorri*, eta abar), bestetik. Gauza bera gertatzen dateke *egoiliar* hitzean agertzen den *-liar* berrekailuarekin, zeren jatorrian *egoile* + *-ar* izan baitaiteke, bestearen analogiaz *-liar* bilakaturik.

Autore batzuren obrak osorik arakatu dira: *Peru Abarca, Kresala*, Axularr-ena, Leizarraga-renak (*-ano* eta bestelako berrekailuena izan ezik), Prai Bartolome-ren *Olgueeta*, Echepare-rena, Dovoisin-en *Laborantzako liburua*, Lapitze-ren *Bi saindu hescualdunen bizia*, eta Olaechea-ren dotrina. Gainerakoetan parte bat besterik ez.

Zenbait erabiltze-modu barbaro azken ordukoren kritika ere egiten da *Euskal Hiztegi Entziklopedikoa*, (Klaudio Harluxet Fundazioa), Donostia 1995, aipaturik, erabiltze-modu horiek iturria Xabier Kintana-ren hiztegian dutela, cfr. *Euskal Hiztegi Modernoa*, Bilbao 1977. Hara nolako per-lak: *Antarktiar Ozeanoa, Arktiar Ozeanoa, Iberiar Penintsula, Mediterraniar klima*, eta abar.

## RESUMEN

En este trabajo se dan los textos de diversos autores, en los cuales los gentilicios que aparecen van marcados con letra cursiva. Las formas, por lo tanto, se registran tal como cada autor las utiliza.

Al mismo tiempo se estudian los sufijos *-tiar* y *-liar*, los cuales se utilizan sólomente en el País Vasco del norte de los Pirineos: *goiztiar, kaltiar, etxatiar etxetiar, jornaltiar, jainkotiar, bazkaltiar, baketiar, mundutiar, herriar*, y, por otra parte, *egoiliar*, así como también las formas que se registran en Duvoisin: *Epikurotiar* y *Estoiziar* [sic], etc.

Lo más probable es que el sufijo *-tiar* esté formado de dos elementos: *-ti* + *-ar*. Ciertamente el sufijo *-ti* se emplea fuera del ámbito de la declinación locativo-temporal como formante de derivados que se aplican a seres animados, especialmente a personas, pudiéndose establecer la existencia de una distribución complementaria en su uso: *negarti* 'llorón', *ezkertti* 'zurdo', etc., por una parte, y el ablativo *etxeti* '(salir, venir, etc.) de casa', por otra. Lo mismo se podría decir del sufijo *-liar* que aparece en la palabra *egoiliar*, ya que en su origen se trataría de *egoile* + *-ar*, de donde *-liar* por analogía con la otra forma *-tiar*.

Las obras de algunos autores se han expurgado en su totalidad: *Peru Abarca*, *Kresala*, el *Gvero* de Axular, las de Leizarraga (salvo en lo que se refiere al sufijo *-ano* y formantes de otro tipo), *Olgueeta* de Prai Bartolome, la de Echepare, *Laborantzako liburua* de Dovoisin, *Bi saindu hescualdunen bizia* de Lapitze, y la doctrina de Olaechea. En las del resto sólo una parte.

Se hace también la crítica de ciertos usos bárbaros de última hora, y en este punto se cita *Euskal Hiztegi Entziklopedikoa*, (Klaudio Harluxet Fundazioa), Donostia 1995, la fuente de cuyas formas se encuentra en el diccionario de Xabier Kintana, cfr. *Eukal Hiztegi Modernoa*, Bilbao 1977. He aquí algunas de tales perlas: *Antarktiar Ozeanoa*, *Arktiar Ozeanoa*, *Iberiar Penintsula*, *Mediterraniar klima*, etc.

## RÉSUMÉ

Ce travail fait référence aux textes de plusieurs auteurs, dans lesquels les noms des habitants des villes qui y apparaissent sont écrits en italique. Ces noms restent, donc, enregistrés sous la forme dont l'auteur les emploie. Sont également analysés les suffixes *-tiar* et *-liar*, qui s'emploient uniquement dans le Pays Basque du Nord des Pyrénées.

Les oeuvres de certains auteurs ont été entièrement expurgées, alors que celles d'autres auteurs ne l'ont été qu'en partie. Le travail reprend également une analyse critique de certains usages barbares de dernière heure.

## ABSTRACT

Texts written by diverse authors are presented in this piece in which the names of the inhabitants of the different villages are figured in italics in order that the forms may be recorded as they are employed by each author. At the same time, the suffixes *-tiar* and *-liar* are studied, which are only used in the Basque Country of the northern Pyrenees.

The works of some authors have been totally expurgated, whilst others only in part. An evaluation of certain of the most recent foreign uses is also made.